

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Egoitza, 1993-01-29

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Agintari agurgarriak,
Euskaltzain lagunkideak,
Andereak eta Jaunak, agur

1918-ko urtarrilaren 25-ean, duela beraz 75 urte, Bizkaiko Aldundiaren jauregian Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu diputatuek presentatu zuten txosten bat euskaraz Kosme Elgezabalek irakurtu zuena. Txosten horretan galdegiten zioten Aldundiari kontuan har zezan eskakizuna, hots, euskal Akademia baten sortzea. Onartu zen eta Bizkaiko Aldunditik, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko aldundietara asmoa zabaldu zen, lauek erabaki zutela Oñatiko biltzar nagusian eramanen zela gaia.

Aspaldian jendeen artean zebiltzan euskal Akademia baten sortzeko ideiak. Lehen aldikoz Kosme Elgezabal eta Felix Landabururi esker, ideia ez da hitz huts gelditzen, gauzatzen ari da aldiz, urtariletik eta irailearen arteko epean.

Bigarren urratsa: Oñatiko batzarrean Kosme Elgezabalek —Felix Landaburu zendu zen anartean— mahaigainean jarri zuen Bizkaiko Aldundiaren erabakia, parte hartuz eztabaidetan. Han izendatuak izan ziren lehenbiziko lau euskaltzainak: Resurrección María de Azkue, Arturo Campión, Luis Eleizalde eta Julio de Urquijo.

Hirugarren urratsa: 1910-ko irailaren 21-ean, Eusko Ikaskuntzak deiturik, Gipuzkoako Aldundi jauregian bildu ziren lau euskaltzainak eta *Jaungoiko-zale*, *Euzko Deia*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Irugarrego Prantsiskotarra*, *Euskal Erria*, *Euskal Erriaren alde*, *Euskal Esnalea*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos* eta Baionako *Eskualduna* deritzan agerkarien ordezkariak. Egun hartan izendatzen dituzte zortzi euskaltzain: Adema, Agerre, Agirre, Broussain, Eguzkitza, Intzagarai, Lhande eta Olabide. Orotara 12 euskaltzain euskalki guzieren lekuko direnak, haien artean Iparraldeko hiru, erakutsiz —eta nola ez aipa aurten mugak ezeztatzen ari

direnean— Euskaltzaindiak, sortu orduko, mugaren gainetik nahi zuela izan.

Laugarren urratsa: 1919-ko urriaren 7-an Gipuzkoako Aldundi jauregian biltzen dira lehen aldikotz 11 euskaltzain —Adema-k adierazi du ez duela izendapena onartzen— eta izendatzen dute Azkue euskaltzainburu, Agerre diruzain, Urkijo liburuzain eta Eleizalde zadorlari. Lanean has daiteke Euskaltzaindia. Lehenbiziko xedeetan agertzen da “Euskeraren batasun bideen aztertzea”, 1920-eko jorrailaren edo apirilaren 26-an irakurtu zelarik Campi3n eta Broussain jaunen txosten edo “idazkin ederra euskeraren batasunera eltzeko dagokezan bideak zeero ta sakonki agerturik”, haren izena zela “Informe de los se1iores acad3micos A. Campi3n y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificaci3n del euskera”.

* * *

Berrogeita hamar urteren buruan, Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean ilbeltzaren edo urtarrilaren 26-an goizeko hamaiketan hasi da Euskaltzaindiaren Urre-eztaietako lehenbiziko Biltzarra, Manuel Lekuona dela buru. Jadanik urre ezteiez mintzatu zen Euskaltzaindian, baina egun hartan goraki mintzatu zen Aresti. Hona zer dioen orduko agiriak: “Aresti”k dio ordua dela euskararen batasuna seriozki artzeko eta biltzar nausi orretarako gairik bearrezkoena euskeraren batasuna dala. Gero euskararen batasunari buruz erabagi batzuek artzeko, euskaltzainiak bakarrik, beren artean autatzen dituzten beste norbaitzuk ekipoan arturik, oi1arri batzuek artu bear lituzkeela esan da. Euskalki bakoitza errientzat errespetatuaz, literaturarako euskera batasun bat lortzeko”.

Antolatu zen kongresua, Arantzazuko kongresu famatu hura, bildu zelarik hiru egunez, 1968-ko urriaren 3, 4 eta 5-ean. Han agertu zen Mitxelena egiazko maisu, gauzak argi eta garbi azaltzen zituela, bakoitzari emanez zor zitzaiona, bereziki 1964-eko Baionako biltzarreko proposamenak kontuan hartuz. Aski da irakurtzea eman zuen txostena eta bereziki lehenbiziko pundua: “Oinarriak. Ze batasunen bila gabiltzan” izenekoa. Sarrera horretan datza euskara batuaren filosofia osoa, agertzen dituela arrisku eta traba guziak eta batasunaren lortzeko urratu behar den bidea, Euskaltzaindiaren ahalak, ahalen mugak, hots, hitz batez, geroari buruz Euskaltzaindiaren eginbidea.

* * *

Badakigu geroztik batasunari buruz egin diren urratsak: deklinabi-dearen batasuna, erakusleena, aditz laguntzaileena. Badakigu bertzalde batzordeei esker Euskaltzaindiak segitzen duela batasunerako bide luzea.

Hor dira lekuko *Orotariko Euskal Hiztegia*, Gramatika, Hizkuntz atlasa, Onomastikako ikerketak, literaturari buruz egin diren kongresuak...

Bide urratzaile gisa jokutzen da Euskaltzaindia. Ikusten du denbora berean segitua dela. Idazle gehienek beren adostasuna agertzen dute, hor daudela lekuko urtero kaleratzen diren liburuak, hilabetero eta astero publikatzen diren aldizkariak, halaber *Euskaldunon Egunkaria*.

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskal Komunitate Autonomoko hiru foru aldundiek, hiriek, herriek onartzen dituzte eta errespetatzen Euskaltzaindiak eginikako proposamen eta erabakiak. Berrikitan irakurtu duke zue Pyrénees Atlantiques deritzan Kontseilu Orokorreko buruzagiak galdegin diola laguntza Euskaltzaindiari bide seinale elebidunen ezartzeko, Bayrou jaunak ziolarik: “Euskaltzaindiak ezagutze eta defenditzea merezi du” eransten zuela gero “Euskararen aldeko Erakunde premiazkoa da”.

Eremu guzietan sartua da euskara batua, bereziki erakaskuntzan, hizkuntz politikari esker, sekulan baino gehiago gure hizkuntza hau zazpi eskualdetako eskualdunen lokarri premiazkoa izanez. Atzekaldera soako bat emanez, zer aldaketa 75 urtez, zer aldaketa, bereziki, azken 25 urte hauetan.

Egun hasten ditugu Euskaltzaindiaren 75. urteurrenaren eta Arantzazuko kongresuaren 25. urteurrenaren ospakizunak. Bi urte iraunen dute, hasieran aipatu ditudan urratsei, jarraikiz:

– Egun, 1993-ko urtarrilaren 29-an, Kosme Elgezabal eta Felix Landabururen omenaldia.

– 1993-ko urriaren lehenbiziko egunetan, Oñatin, jardunaldi batzu, lehenbiziko lau euskaltzainen izendatzea eta Arantzazuko kongresua gogoratu.

– 1994-eko urrian bururatuko dira ospakizunak Donostian, bertze jardunaldi batzuekin, ez baitu ahanzten Euskaltzaindiak duela 75 urte, irailaren 21-ean, izendatu zirela bertze zortzi euskaltzainak eta urriaren 7an bildu zirela lehen aldikotz Gipuzkoako Aldundi jauregian. Bi jardunaldien helburu nagusia da urrats batzu gehiago ematea euskara baturako bide luze horretan. Etorria da garaia. Alabaina, orain artinoko aldaketak behar ziren iretsi. Ikus daiteke eginak direla. Badu orain urte bat sortu duela Euskaltzaindiak Euskara Batuko batzordea. Proposamen batzu eginak ditu, eztabaidatuak izan dira euskaltzain osoen artean eta zabalduak gero, jakiteko zer harrera daukaten. Hiztegi Batuko batzordea, hau ere berrikitan sortua, ari da lanean.

Euskaltzaindiko batzorde guziek beren helburuak finkatuak dituzte euskara batuari buruz. Bi jardunaldientzat, aurtengo urrikoa eta datorren

urteko urrikoa, Zuzendaritzak euskara batuko batzordearen laguntzarekin egitarauak prestatuko ditu, gomitak igorriko nasaiki, nahi baitugu biltzar horiek oso idekiak izan daitezen eta eztabaidatsuak. Jadanik badu Euskaltzaindiak Arantzazuko (1968-an) eta Bergarako (1978-an) kongresuen esperientzia. Biak izan dira aberatsak, euskara batuaren onerako. Ez da Euskaltzaindia bere baitan bizi den erakundea. Erakunde publikoa izanez idekia da, bertzeen iritziak jakin nahi ditu eta hartzen ditu, gure euskara bezalako hizkuntza batek, batasunerako bidean, gehiengoaren onespena behar baitu orain artino bezala.

Hauxe da beraz bi urteren lan-programa. Bada zer egin eta, beldurrik gabe, sartuko da lan horietan Euskaltzaindia, pentsatzen duelakotz bere diamantezko ezteien ospatzeko Euskal Herriari eskaini lezakeen oparirik ederrena dela zuhurki eta fermuki aurreratzea batasunerako bidean, ahanzi gabe hizkuntzaren batasunak sor dezakeela, bidenabar, gogo eta bihotzen batasuna.

Denbora berean ikusten dugu European garela, mugak suntsitzen ari direla, hizkuntza gutxituen gaia Europako kontseiluak zabaldu duela eta hizkuntza gutxitu horiek ez direla maila berean jarriak European. Aspaldian harremanetan sartua da Euskaltzaindia bertze hizkuntzez arduratzen diren erakundeekin. Aurten, diamantezko ezteien karietara, Jagon sailak jardunaldi batzu antolatuko ditu —azaroan edo abenduan— harreman horien sendotzeko eta jakiteko zer egiten duten eta nola jokutzen diren Katalunian, Galizian, Flandrian, adibidez. Jagon saila alde batetik, Iker saila bertetik, Euskaltzaindiak sortuz gero dauzkan bi sail nagusiek beren emaitzak eskainiko dituzte beraz, diamantezko ezteietako ospakizunetan.

Duela 75 urte, Kosme Elgezabal eta Felix Landabururi esker Akademia baten sortzeko ideia gauzatu zen. Geroztik egin da bide, goiti beheitiak izan dira, urte ilunak, baina segitzen du Euskaltzaindiak Euskal Herri guziko agintarien ezagutza eta laguntzari esker, 75. urteurreneko ospakizunak bere egoitza berrian hasiz. Ez baita ahanzkorra Euskaltzaindia, baitaki zer den historia eta kondairaren balioa, nahi ukan die, belaualdi berrien jakinerako, bere esker ona erakutsi bi bizkaitar diputatuei, Kosme Elgezabal eta Felix Landabururi, marmolezko harri baten bitartez. Hemen daukazue. Bertze egun batez erabakiko da non ezar. Bizkai-ko diputatu nagusi den Pradera jaunari galdegiten diot ager dezan nirekin batean oroitzapenezko harri hau. Eskerrik asko!

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Bilbo, egoitza, 1993-01-29

Jose Antonio Arana Martija

ELGEZABAL ETA LANDABURU, BI BILBOTAR, EUSKALTZAINDIAREN ERNAMUINEAN

Mahaikide agurgarriak,
Euskaltzainkideak,
Herri-Aginteen ordezkariak,
Omenduen senide eta adiskideak,
arratsalde on.

Berriz ere biltzen gara egoitza eder honetan, Bizkaiko Diputazioari eskerrak eman beharrean. Baina orain arteko eginkizunetan etxea izan baita eskergarria, hau da, eraikuntza eta beronen horniketa izan badira Herri Aginteei eskertzekoak, oraingoan beste zio batek eragitzen du gure bihotzaren taupada: etxe honen barruan gordetzen den euskararen arimak, izpirituak, duela 75 urte jaiok, gorputzik gabeko izaki iraunkorrak. Baina nola erabil dezaket “gorde” hitza, *Sancta Sanctorum* balitz bezala edo *Sancta sedes deorum*, jainkoen altxorraren gordailua, Birgiliok nahi zuen bezala hizkuntzaren *Sancti ignes* izan beharrean, euskararekiko jakituria eta maitasuna hedatzen duena, Euskal Herri osoan sua bizirik mantentzen duena, edo hurbilago dugun Etxeparek desiratzen zuena, *Euskara, jalgi hadi kanpora!*

Eta hau da, hain zuzen, gaur hemen ospatu nahi duguna: gero erakundea izango zen izpirituaren sorrera, hemen, Bilbon, hiri handi eta erdaldun honetan bi bilbotarrek kimatutako ernamuina. Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon jartzeko izan ziren eta badira arrazoiak; baina Bilbori zor zaiona ere bada. Argi eta garbi ikusi zuen Luis Eleizalde (1865-1923) kitatze honen beharra egoitza hemen kokatzea proposatu zuenean “euskal bizitzaren agerpenetarako hemen sortzen ziren bulkadarik indartsuenak eta”. Euskal Akademiari dagokionetik, behintzat, Bilbo izan zen sorgunea. Gero Bilbo izango zen Abando elizatean proposatu zuen Jose Paulo Uribarri arabarrak (1775-1847) hogeita lau gizon izendatzea “euske-

raren ganean egiteko ahalegine hau” (1832). Bilbotarra izan zen Aristides Artiñano (1840-1911) euskararen Akademiak arduratu zena, Durangoko Euskal Jaietan (1886) Arautegia aurkez tuz. Eta bilbotarra izan zen Adolfo Gabriel Urkixo (1866-1933), Julioren anaia nagusia, 1906an, Bizkaiko diputatu nagusia zelarik, beste hiru diputazioei Euskararen Akademia sortzea proposatu ziena. Baina proiektu hau ere ezerezean geratu zen.

Louis-Lucien Bonaparte Euskal Herrira etorri zen urte berean, hots, 1856an, akademiaren premiaz lehenbiziko aipamena egin zuena Jose Franzisko Aizkibel (1798-1865) azkotiarra izan zen; baina idazkietan geratu zen lekukotasun hau. Ekintzetara jo zuen, ordea, Baionan 1911an sortua izan zen *Cercle d'Etudes Basques* izeneko elkarteak akademiaren antzera 1913 arte lanean iraun zuena. Mendearen bigarren hamarraldi honetan euskararen alorra jorratuagoa zegoela dirudi. Apologisten garaia gaindituta zegoen eta ikerketak zientziaren bidetik zihozzen Bonaparte, Van Eys, Vinson, Dodgson, Schuchardt, Uhlenbeck eta beste hizkuntzalariei esker. Julio Urkixoren eraginez, eta babespean, sortu zen RIEV aldizkariak ematen zion euskarari beste irudi berria ikerketen munduan. Bestalde, euskaraz idatziriko Azkueren aldizkariak (*Euskalzale*, *Ibaizabal*) eta *Euskal Esnalea*, *Eskualduna* eta beste aldiroko argitarapenek idazle eta irakurleen artean gero eta aukera gehiago eskaintzen zuten euskara erabiltzeko eta zaintzeko. Ez dugu ahantzi behar Sabino Aranak, abertzaletasunarekin lotuz, nolako bultzada eman zion euskararen erabilerari. Pulpituetatik eta aldizkarietatik kalera zetorren euskararen estima, base-rritarkeria kutsua galduz. Apaizen esparrua zabaltzen zihoan eta abokatuak, osagileak eta beste motetako profesionalak ez zuten batere euskararekiko higuinik; Eleizaldek noizbait esan zuenez, metamatekariak ere euskalariak izatera iritsi ziren, “Bustintza eta ni”. Hori baino gehiago aitortu zigun Azkuek 1921ean, Durangon ospatutako *Lenengo Euskaleguintako Itzaldietan*: “Gu euskaltzainok intzentsu-usaina artzera yoanaz, Euskaltzaindiko aulki onek emakume astitsuentzat itziko geukez”. “Astisuena” kenduta, hara hor non betea izan den Azkueren profezia.

Euskara bera irauntzeko eta indartzeko urratsak ematen zihoan bitartean, euskarri behar zuen gizartea ere nabariro aldatze giroan zebilen. Bizkaian, behintzat, abertzaletasuna, eta honek euskararekiko zekarren ondorioa, adoretu indartu zen bigarren hamarraldi horretan. Iratzeder-ek Aita Donostiari zuzenduriko olerki baten hasiera datorkit orain gogora:

Mendiz bertzaldeko Eskual-Herria
ezin geiago zait xoragarria,
badu bihotzeko su pizgarria,
zainetan indarra, soan irria.

Alde huntako Eskual-Herria
etzait gutiago maitagarria.
Eztu bertzean den suzko-jauzia
bainan bai: Goxoa eta neurria (1).

(1) *Euzko Gogoia*, 1956, orrila-garagarrila, 10. orr.

Benetako su pizgarria, suzko-jauzia eta zainetako indarra gertatu zen 1917an Bizkaiko Diputaziorako hauteskundeak eratu eta burutu zirenean. Maiatzaren 1-ean, 20 diputatutik, 11 Euzko Alderdi Jeltzalekoak atera ziren, gehiengoa lortuz. Tartean ziren Ramon de la Sota Aburto, maiatzaren 4ean diputatu nagusia izendatua, Luis Urrengoetxea, Fernando Zubikarai, Horazio Rotaetxe, Manuel Egileor eta gaur omentzen ditugun Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu.

Ramon de la Sota Llano (1857-1936), diputatu nagusi berriaren aita, Azkueren adiskidea zen aspaldidanik eta euskararen aldeko ekintzak burutzeko maiz luzatu zizkion diru laguntzak. Ramon de la Sota Aburto (1887-1978), semeak, bi urteren zehar ihardun zuen Diputazioko karguan, 1919.eko maiatza arte. Haurtzaroan Azkueren ikasle izan zen Jardines kaleko Ikastetxean eta gero Institutuan on Resurreccionez zuzentzen zuen katedran. Beraz, hogeita hamar urtekin Diputazioaren ardura nagusia hartu zuenean, eta euskalzaiez ondo inguraturik, bazekien euskararen alde fermuki jokatu behar zuela euskaldun berri honek. Diputaziora heldu eta bi hil barru izan zuen lehen istilua, non eta Gernikako Batzar Etxean, norekin eta apaiz batekin, Gernikako artzapeza zen Jose Domingo Iturraranekin. Hamaiketako meza beti bezala gartzelaniaz ematera heldu zenean, galarazi zion euskaraz ematea aginduz. Uztailaren 15ean gertatu zen hau eta hainbat apaizen protestak eta salaketak izan zituen. Euskal Herriko apaizgoa euskararen jagole izan dela ez du eginkizun honek frogatzen, nahiz eta salbuespena izan. Baina beste euskararekiko eraso ere gertatu zitzaion diputatu nagusi honi, hau ere apaiz batengandik jaso: Zamudioko parrokoa zen Domingo Abonak ez zion aita bati onartu semeari bataioan euskarazko izena jartzea. Eta jarrera hau Diputazioak 1918.eko urtarrilaren 25ean egin zuen bileran salatua izan zen, gaur aztertu behar dugun bileraren agirian azaltzen delarik. Egileor diputatu abertzaleak aurkeztu zuen gai hau bileran, salaketaren ondorio gisa zera esanez: “Como no existe hoy ninguna entidad, pues aún no se ha formado la Academia de la Lengua Vasca, a nadie corresponde mejor que a la Diputación bizkaina el salir por los fueros de nuestro idioma”.

Bilera honen agiri luzea 1919.eko urtarrilaren 2tik 14ra argitaraturiko *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya* delako hamar aletan agertzen da, eta Euskaltzaindia sortzeko Elgezabal eta Landabururen proposamena urtarrilaren 14koan, beraz, egin eta urte bete beranduago. Iragandako astelehenean, urtarrilaren 25ean bete dira 75 urte 1918an proposamen hura aurkeztu zenetik eta hor dago ospakizun honen zioa.

Baina proposamenaz hitz egin orduko, bizpahiru irazkin egin behar ditut. Egun hartan bildutako diputatuak hauek izan ziren:

Burua: Ramon de la Sota Aburto

Buruordea: Luis de Urrutia

Idazkariak: Felix Landaburu
Manuel Egileor

Diputatuak: Vicente Fatrás, Hilario Bilbao, Jose Maria Garay, Lorenzo Goikoetxea, Mariano de la Torre, Ramon M.^a Rotaetxe, Vicente Ibarra eta Kosme Elgezabal.

Eguneko gaitan azkena zen dagokigun proposamena eta Sota jaunaren baimenarekin proposamena irakurtzen hasi orduko, hara nolako istilua sortu zuen Vicente Fatrás Neira diputatuak:

“Pido la palabra con carácter previo. Viene ahora en el orden del día una moción redactada en vascuence para someterla a deliberación de esta Excma. Corporación, y el hecho de que el Sr. Presidente la haya admitido y la haya incluido en el orden del día es un acto de patente separatismo, pues en esta Diputación no es habitual el uso del vascuence, ni los Diputados firmantes hablan habitualmente ese idioma. Esa moción tiene un carácter verdaderamente antiespañol y separatista, que no se puede tolerar pase sin mi protesta más enérgica. Se habla en ella de regiones de Euzkadi y de hermanos transpirenaicos. Eso viene a ser un alarde de separatismo que no os atrevéis a hacerlo público, presentando en castellano como debierais haber presentado esta moción. Yo protesto de tal proceder y pido sea retirada esa Moción atentatoria a la unidad nacional.

El Sr. Presidente: Se va a dar lectura a la Moción.

El Sr. Fatrás: Eso es antipatriótico; eso es separatismo puro. Yo protesto y abandono el salón, pues no quiero con mi presencia contribuir a que sea tomada en consideración una moción de esa índole y por añadidura escrita en vascuence”.

Hau esan ondoren, gelatik atera zen Fatrás diputatu sozialista eta berarekin batera Hilario Bilbao eta Jose Maria Garay diputatuak. Eta esan behar nuen hirugarrena da gaztelaniaz eta euskaraz irakurri zela proposamena, Fatrás, Bilbao eta Garay diputatuek entzun ez zutena eta nahi izan bazuten ulertuko zutena. Baina itsurik txarrena ikusi nahi ez duena omen da. Egiaren mesedetan esan dezagun urtarilaren 12an sinaturiko proposamena zela 25eko bileran aurkeztu zena, eta gaztelaniazko testua Kosme Elgezabalek eta Ramon M.^a Rotaetxek sinatuta zetoirela, eta euskarazkoa Kosme Elgezabalek eta Peli Landaburuk sinatuta. Beraz, Rotaetxe jaunari ere nolabaiteko begirunea zor zaio, eta gera bedi hemen Euskaltzaindiaren onespenean eta eskerrona. Hauek izan ziren aurkezturiko proposamenak:

«EXCMA. DIPUTACION DE BIZKAYA.—*Excma. Sr.:* Un trabajo difícil de suyo para realizarlo y organizarlo y más difícil en las circunstancias en que nuestro pueblo se encuentra y al que debemos sostener con todas nuestras fuerzas, es el de la cultura. Los prejuicios traídos por la

ignorancia y la mala voluntad por la conciencia extraviada sobre las cosas de la patria, la intromisión indebida de culturas extrañas, el estrecho criterio de sus directores y el abandono en que durante mucho tiempo hemos tenido nuestra personalidad, son las causas de la triste situación en que en este concepto se halla nuestro Pueblo. Mucho hay que destruir y casi todo está por hacer.=Con este ambiente miserable, vanos serán los esfuerzos de algunas beneméritas personas si no cuentan con un poder organizado que les sostnga y difunda, y á pesar de una preparación miserable pretendemos, con mayor voluntad que método, crear y propagar la cultura: que se escriban muchos libros, que el euzkera se robustezca, perfeccione y se le acoja con los honores que le corresponden en el Púlpito, en la Escuela y en la Cátedra; que sea el elemento principal de nuestra vida de relación que él vigorice la personalidad vasca. Deseo plausible, pero ineficaz, si no nos valemos de medios adecuados para realizarlo. La vida social del idioma no puede afirmarse sin un buen grupo de escritores y lectores, y ni unos ni otros tendremos si al pueblo de donde han de salir no se le enseña á ser euzkeldun consciente. Siempre quedarán cortos por su carácter individual ó por otras causas los plausibles esfuerzos que para colmar esta falta se hagan por algunos.=Adviértense las deficiencias en el instrumento primordial de todo trabajo. El euzkera el campo abierto á cualquier capricho. La presunción del propio saber para dogmatizar en la materia, es señal de casi todos los escritores. Nadie quiere ceder en sus apreciaciones, las diferencias subsisten, y gracias á Dios si á pesar de todo esto se adelanta algo.=Ante todo, pues, hemos de preparar el instrumento para valernos y servirnos de él. Una Corporación de personas competentes que dirima las diferencias después de examinadas y contrastadas, llene las lagunas, fije el sentido y significación de las palabras, establezca una ortografía uniforme los dialectos, sin prescindir de ninguno de ellos, sino completándolos y enriqueciéndolos entre sí, forme Bibliotecas, y, en resumen, nos dé un lenguaje puro, sin imperfección, apto y fácil para los trabajos científicos, digno del Pueblo vasco.=Un espíritu amplio nada egoísta, es preciso que anime la organización, naturalización y desarrollo de tal Corporación, sin más miramientos que los debidos á la verdad y al patriotismo, sin pretender por encima de todo que prevalezcan determinadas opiniones, nos dará después de serenas discusiones las reglas directoras de nuestro idioma.=No ha de encerrarse este proyecto en Bizkaya, puesto que á todos los vascos interesa. ¡Menguado éxito el suyo si lo limitáramos á nuestra región! Gipuzkoa, Alaba, Nabarra y nuestros ciento cincuenta mil hermanos del lado de Francia, oirán seguramente nuestra invitación y nos darán su cooperación con el amor debido al lenguaje de nuestros antepasados, cuya sentencia de vida ó muerte ha de dictarse en el presente siglo.=Las bases de la Institución serán:=1.º Al amparo de las Diputaciones de Bizkaya, Gipuzkoa, Nabarra y Alaba y la representación de los vascos ultrapirenaicos, se funda una Institución que se denominará cuyo fin será estudiar, purificar, robustecer, unificar y difundir el euzkera y sus variedades dialécticas. Sus resoluciones y acuerdos en tanto lo permitan el apoyo y la Autoridad de las entidades

que la amparan, deberán cumplirse estrictamente. De igual modo las citadas entidades amparadoras de la Institución, recurrirán á ésta en cuantos asuntos afecten á materia euzkerica.=2.º Los miembros que integrarán la nueva Institución serán veinte, nombrados en forma que debidamente representen las distintas regiones de euzkadi y las diversas variedades dialécticas del euzkera. La Institución podrá nombra socios honorarios á aquellas personas que por sus meritorios trabajos en pro del euzkera se hallen por especiales circunstancias (residencia, ciudadanía, etc., etc.) imposibilitadas de ser miembros activos. El número de miembros no excederá de veinte. Igualmente se nombrarán miembros cooperadores para ejecución de determinados trabajos que la Institución les encomiende. El trabajo de éstos será debidamente retribuido.=3.º La Institución se reunirá una vez al mes cuando menos. Los miembros que acudan á la reunión percibirán dietas que se señalen en el Reglamento.=4.º Desde luego se nombran designándose por de pronto miembros á los Sres. Lhande, Campión, Azkue, Agife, Afiandiaga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, un representante de «Euzkeltzale-Bazkuna», Eguzkitza, López Mendizabal, Urkixo (D. Julio), Agefe, de Pamplona, y un representante del periódico «Eskualduna», de Bayona. Estos señores redactarán el Reglamento de la Institución.=5.º Una vez constituida la Institución, ella misma determinará su domicilio social.=6.º La Excelentísima Diputación de Bizcaya subvencionará con 10.000 pesetas anuales. Hasta tanto se confeccione nuevo presupuesto, la Comisión de Hacienda determinará de qué Capítulo habrá de extraerse la cantidad necesaria.=7.º Este proyecto y la resolución que sobre él recaiga deberá comunicarse á las distintas Diputaciones de Euzkadi y á los representantes de los vascos ultrapiereñicos, recabando al propio tiempo su apoyo moral y material.=8.º Cada Diputación nombrará un Sr. Diputado que la represente. Los Sres. Diputados designados constituirán la Comisión gestora hasta tanto quede constituida definitivamente la Institución.=Bilbao á 12 de Enero de 1918.—Kosma Elgezabal'tarra.—Ramón M. de Rotaeché.»

«Jaunoi: Benetan urgazi bear dogun aurrenetarikoan lan artian, nekeza berez ta gure erriya bizi dan bereizkiñakaz egiztu ta atonduteko gatx-gatxa, agertzen yaku irakaskintziena, Jakiñezak eta naikunde zitalak sortu dabezan zentzugabeko ustiak, ezaupen okertuak aberriyatza, jakintzatzerritarren sarkunde bidebakoak, bere artezkari andikiyen erizpen bedarrak eta gure buruaz aspaldiyan ixan oi dogun arduraezak, ekarri dabe oraingo geure erriyen egoera tamala. Asko deuseztu ta iya gustiyya iragiteko dago.

Olako inguru bageaz, notin ta aldra bikain batzuen alegiñak, onek urgazi ta zabaltzeko almen eraldu bat izan ezik, alperrik dira. Eta egipidiaz baiño naikunde obiaz gura dogu, geure gerkunde au txiro arren, jakidiya irasi ta zabaluz; idazti ugari iratzi; euzkeria indartu, obetu ta berari dagokiyon abegiyaz, artu dayela txoniztegi, ikastol eta irakastokiyetan; bera geure artu-emoneko lenengoetarikoan lankiyya izan daitela, euzkeriak euzko-notintasuna sendotu dagiyen. Naikunde zintzoa, baiña dagokazan bidiak artzen ezpadoguz, elduko etxakuna.

Izkutzen gixarteko bizitza, idazle ta irakurle pillo on bat barik, ezin sendotu lei; eta ez idazle ez irakurlerik izango dogu, eurek sortu bear dauzen erriyari, benetako euzkelduna izaten irakasten ezpadotsagu. Labur geldituko dira beti, bakoizdunak edo diralako, utsune au betetako baten batzuek egiten dabezan iñungo alegin txalogarriyak.

Lan oroen lendiko bidian agiri dira gabe orrek. Zelai muga bako bat da euzkeria edozelako naikeriyentzat. Norberen jakintzen autustia, au da ta au ezta euzkeriatzaz irakasteko, idazle geyenen atza da; iñok be eztau bere erizpena jarein gura, irauten dira aldiak eta eskarrak Jaungoikuari ozta-ozta izan arren be, zerbait aurreratzen ba-gara geure lanian.

Lenen-lenen ba, bidia atondu bear, beragandik ondo ibilteko ta bera zuzen erabilteko. Biar-añeko notiñen Bazkun bat, aldiak batak bestiakin aztertu ta al dan ondoen erabagiteko; utsunak bete; itzen ikurpena eta esanguria tinkotu, idazkera bat jarri; izkelgiak bata be ezetsi barik eta alkarre geitu ta aberastuta baiño, orobatu; idaztiyak bildu, eta azkenez, izkera garbi, makezbako jakintzlanetarako egoki ta erabilkorra, euzko-errien gaigarria, emon dagizkun.

Gogo zabal batek eta ezetan bez berekoyak eragin bear dauz iragiko dan Bazkunen antolakizuna, izakera ta bizkitza. Egiyari ta abertzaletasunari begira eritzi batzuk danen gain edozelan ipiñi nai barik, emongo dauskuz eztabaida bare ondoren, euzkerien arau azterkariyak.

Asmo onek, euzko orori dagokiozalako, eztira esi bear Bizkai egale-tan. iGaraipen gixajoa geure erkiyan xedatuko bageunke bera! Gipuzkoa, Araba, Naparra ta Parantzeko 150.000 anayak entzungo dabe, orixe bai, geure deya eta ekarriko dauskue euren laguntza, gagozan eunkiyian bizi edo ilteko epaya artuko daben asaben mintzari, zor yakon maitasunaz.

Iraskunden eustazpiyak ixango dira:

1.^o Bizkaya, Gipuzkoa, Araba eta Naparraen Diputaziño eta Parantzeko euzkeldunen ordezkariyen keriz ta babespian, irasten da Bazkünde bat ixenaz, euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu, orobatu ta zabaltzeko. Bere erabakiyak, agintzallen sorospen eta almena eltzen danaña, bear-etsiko dira; eta agintzalle oyek ukutzen daben euzkelgaiz oroetan beragana zuzenduko dira.

2.^o Ogei lagunek osotuko dabe Bazkundia eta izango dira Euzkadi'ko erki ta izkelgi gustiyen ordezkariyak. Euzkeriaz lan ondoen egin daben euzko edo atzerritarrak, euren zertzeladagaitik (biztokiyan, erritasuna, t. a.) Bazkunde bertan bazkide egizkorrak sartu ezin ba-dire, lagun omengarriak bezela ixentau leikioe Bazkundiak. Onek eztira izango ogeitik gora. Baita be jarten dira bazkide lankidiak. Bazkundiak aldunduta zeregin mugatu batzuk egiztuteko. Onexen jardunduntzia, ordaindua izango da, eta bere zenbakuna bear dan beste.

3.^o Illian bein gitxienez batzauko da Bazkundia; eta Araudiyak tinkotu daben sariya emongo yake batzaldira datozanai.

4.^o Jarten dira oraindik lagun, Lhande, Campion, Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Etxalar, Eleizalde, Olabide, Belaustegigoitia, Basabe, Euzkeltzale-Bazkunako bat, Eguzkitza, López Mendizabal, Urkixo (Julio), Agerre, (Iruñakua) eta Bayona'ko «Eskualduna»en ordezkari bat. Jan orrek gertuko dabe Bazkundiaren Araudiya.

5.^o bein eratu ezker bereztuko dau bere jartokiya.

6.ⁿ 10.000 laurlekogaz urtian urgaziko dau Bizkai-Diputaziñuak J. Zergaiti barriya egin arte eralgi behar dana, Ogasun-Batzordiak bereztuko dau nundik atara.

7.ⁿ Asmo au ta beratzaz ezarriko dan erabakiya egiztuteko jakin erazoko jakoe, euren gogozko ta txindiz laguntza eskatzen yakoela, Euzkadi'ko beste Diputaziñoeri eta Parantze aldeko euzkeldunari.

8.ⁿ Diputaziño bakotxak aututen daben Diputadua sartu ta izango da nagusi Batzorde gerlian, Bazkandia bear dan lez jarri arte.

Bilbon Lotazilleko 12.ⁿ - 1918.=Kosma Elgezabal'tarra.=Landaburu taf Peli.»

Testu hau, euskarazkoa, Bizkaiko *Boletinean* agertu baino lehen *Euzkadi* egunkariak argitaratu zuen 1918.eko urtarrilaren 28ko alean, hau da, ostiralean Diputazioan aurkeztutakoa hurrengo astelehenean kaleratu zuen Plaza Barri honetan administrazio bulegoa zeukan egunkariak. Beraz, irakurleek bazekiten zertan zegoen euskal Akademia sortzeko asmoa. Gero *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkariak, 1920an kaleratu zuen lehen zenbakian, eman zuen berriz testua. Baina ohartxo bat egin behar zaio Akademiaren argitalpen honi, ortografiarena, hain zuzen: *Boletinean* eta *Euzkadin* bi *rr* letrekin agertzen diren hitzak, gure agerkariak *í* gangardunarekin atera zituen.

Zein zen Akademiari egozten zitzaion helburua? Euskararen jagole izatea: “euzkeria ta bere izkelgi oro adiratu, garbitu, obetu ta zabaltzeko” sortu nahi zen *Bazkunea*. Eta horretarako hogeï lagun hautatzea proposatzen zen. Honek ere izan zuen Goikoetxea diputatuaren kontrako iritzia, Diputazioaren aurrekontutik ordaindu beharko zirela dietak eta. Sota jaunak erantzun zion ez zela Bizkaikoa bakarrik, beste hirurak ere horretan partaide izango zirela. Proposamenean izen eta guzti agertzen ziren hautagaiak, herrialdeka, hauek ziren:

Bizkaitik, 7: Azkue, Agirre, Arriandiaga, Bustintza, Belaustegigoitia, Basabe eta Eguzkitza.

Gipuzkoatik, 4: Lhande, Eleizalde, Lopez Mendizabal eta Urkixo.

Nafarroatik, 3: Campion, Etxalar eta Agerre.

Arabatik, 1: Olabide.

Euskaltzaindia Oñatin sortu eta berehala hautatu ziren lehen lau euskaltzainak zerrenda honetan zeuden: Azkue, Campion, Eleizalde eta Urkixo. Eta hurrengo urtean hautatuko ziren batzuk ere bai: Lhande, Agirre, Olabide, Eguzkitza eta Agerre. Nik nire buruari egindako galderei erantzuna eman behar diet une honetan:

1. Iparraldekorik ez baita aipatzen, zergatik agertzen da zerrendan Lhande? Une hartan Hernanin zegoelako, ene iritiz.

2. Nor zen aipatzen den Basabe hori? Kandido Basabe Retolaza lekeitiarra zelakoan nago. Proposamenaren urte berean *Jesusen Biotzaren Deya* sortu zuen josulaguna zen.

3. Zergatik ez zen Iparraldekoen izenik ematen? Baionako *Eskualduna* aldizkariaren ordezkoa aipatzen zen, izenik eman gabe. Baina bazeuden izendatzeko beste ezagunak ziren Barbier, Etxepare, Landerretxe, Saint-Pierre, "Oxobi", Lacombe, Broussain, eta abar. Hauetatik, dakigunez, Landerretxe, Lacombe eta Broussain euskaltzain oso izendatuak izan ziren 1919/1920an. Eta geroago "Oxobi" eta Saint-Pierre.

Dena den ez ziren erratuak izan eta bide okerretik ibili Elgezabal eta Landaburu hautagaiak proposatukeran.

Baina omenaldi honetan gogoratzen ditugun proposatzaileak dira azken lerroetarako utzi ditudanak, amaierako hitzak izaten baitira oroitzapenean hobeto finkaturik geratzen direnak.

Kosme Elgezabal Urrengoetxea. Bilbon, Artekalako 65. zenbakia zerman etxean jaio zen 1877.eko irailaren 27an. Kosme-Damian izena jarri zioten izena gurasoek San Juan parrokian egun berean bataiatu zuteanean (2). Gorozikako Oka auzunekoa zen aita, Basilio Elgezabal Oñartegastai, hargin lanetarako Bilbora etorria. Gertrudis Urrengoetxea Mandiola ama Ibarrurikoa zen. Axpe-Martzanako Isidra Gorostiza Ortueta andrearekin ezkondu zen Kosme Elgezabal 1910.eko uztailaren 2an, Durangoko Andra Maria elizan. Andraren familiako etxean bizi izan zen (orain Kurutziaaga Hotela dagoenean) eta zazpi seme-alaba izan zituzten: Lutxi, Bitor (zeinen alarguna, Cristina Cabrera hemen dagoena), Maria, Jon, Paul, Elizabet (ezkongabe hila) eta Xabier. Deustuko Unibertsitatean egin zituen Filosofia eta Letren ikasketak, lizentziaduna izanik, eta Zuzenbidean Doktoregoa ere bertan lortu zuen 1902.eko urriaren 18an, tesiaren gaia hau izan zelarik: *Un punto de Derecho Político en la Historia de Bizkaya. ¿En quién radicó la facultad suprema legislativa de Bizkaya?*, *Euzkadi* aldizkarian argitaratua, zatika, 1906/1907 urteetan. Euskaltzaindia sortzea proposatu ondoren, ikusi dugunez 1918an, Oñatiko Biltzarrean ere gure erakundearen sortzearen lekuko izan zen eta bertan hizkuntzalariatzako saioetan partaide, Arautegia idazteko lanetan ere bat izan zelarik Azkue, Agirre, Eleizalde, Olabide, Urreta eta Biziola batzordekideekin. Gero harreman estuak izan zituen Euskaltzaindiarekin. *Lenengo euskalegunetako itzaldiak* Durangon antolatu zirenean, 1921.eko irailaren 4tik 8ra, han zen Kosme Elgezabal *Astarloakoiak* taldean. Urte berean, *Erizki-zundi Irukoitza* lana Azkue prestatzen hasi zenean, azaroaren 24an egin zen bileran, Durangaldeko erantzunak betetzeko Kosme Elgezabal proposatu zuen Eleizalde. Gerra hasita frankotarrak Durangora heldu zire-

(2) Bataiatuen 16. Liburua. 102. folioa.

nean, bertako gartzelan atxilotu zuten lau hilabetetan eta gero Palencian bete zituen beste lau urte erbesteratuta. Euskal hiztegi bat prestatzen ari omen zen heriotzea heldu zitzaionean 1953.eko uztailaren 30ean. Testamentu idatzia utzi zuela dio Paul semeak, baina seme-alabei ahozko azken gomendioa honako hau izan zen: zain ezazue euskara eta zuon seme-alabei irakatsi. Kosme Elgezabal Urrengoetxeari eskerrona eta ohorea!

Felix Landaburu Madaria. Honen alaba izan zen Begoñak, Larroque pintoreak aitari egindako oleoa Euskaltzaindari eman zionean (1986-1-31) idatzi nuen Landabururen biografia (Ikus *Euskera*, 1986, 436-437 orr.) Baina geroztik lortutako datu batzuk gehitu behar ditut orain. Bilbon, Tenderia kaleko 50.zenbakia zeraman etxean jaio zen Felix-Maria-Gregorio izeneko haurra, 1886.eko maiatzaren 25ean, egun berean San Anton elizan bataiatua izan zelarik (3). Aita, Juan Landaburu Idigoras bilbotarra zen eta ama, Maxima Madaria Alava, Urduñakoa. Bilboko San Bizente elizan ezkondu zen 1916.eko maiatzaren 15ean Ramona-Teresa Azkue Gorostizaga andrearekin, eta aiko horretan sartzen da, emaztearen alde-tik, hemen dagoen Iñaki Zarraoa, dakidanez Azkuek bataiatu zuena. Ezkonduta bi urtera hil zen Peli Landaburu 1918.eko abuztuaren 4an. Urte bereko urtarrilaren 25ean Euskaltzaindia sortzea proposatu zuen honek, ez zuen ikusi, Elgezabalek bezala, Erakundearen jaiotza. Baina Oñatiko Biltzarraren eraketa lanetan ibilia izan zen bilbotar hau ez zuten ahantzirik utzi eta irailaren 5ean meza bat eskaini zion Biltzarrak, meza-emaile Mateo Mujika izan zelarik, garai hartan Burgo de Osma-ko apez-pikua zenak. Felix Landaburu Madariari ere eskerrona eta ohorea!

Honekin amaitzen dut. Gerokoak, gero.

(3) Bataiatuen 16.liburua, 104. partida.

EUSKALTZAINDIAREN 75. URTEMUGA

Egoitza, 1993-01-29

Jose Alberto Pradera

Bizkaiko foru diputatu nagusia

Euskaltzain Jaun eta Andra agurgarriok eta hemen batu garen lagunok:

Aurretiaz ederki azalduta Haritschelhar eta Arana Martija euskaltzainen hitzetan entzun dogun legez, hainbat euskaltzalek euskararen iraupe-naren eta etorkizunaren kezka barreneraino sartua eukan. Ezin da ahaztu, bestalde, hizkuntza beti joan dala herriaren izatearekin eta senarekin batera, edo, bestela esanda abertzaletasunarekin batera. Garaiak berak, euskararen ardura hartzeko erakunderen bat sortzea eskatzen eban, eta horrelaxe sortu zan, zorionez, Euskaltzaindia.

Hirurogeita hamabost urte bete dira Euskaltzaindiaren sorreratik eta ordutik hainbeste lan egin dau. Baina, beharbada, egin dituen lanak baino garrantzi haundiagoa dauka euskararen sua eta garra beti pizturik gorde izatea, urte txarretan eta onetan, eta hori Euskaltzaindiari zor jako neurri on batean. Azkenaldi honetan, bestalde, bere emoitzak, hizkuntzari jagokozan alderdi danetatik, asko ugaritu dira.

Horregatik, harro egotekoa da Bizkaiko Foru Aldundiarentzat Euskaltzaindiaren sorreran hasiera-hasieratik horrenbesteko partaidetza izatea. Lehenengo urratsa emoteko Bizkaiko Foru Aldundiarekin kontatu eban eta Foru Aldundiak hizkuntzari eta herriari jagoken erantzuna emoten jakin izan eban.

Bi Ahaldun abertzale eta euskaltzale izan ziren hori bultzatu ebenak, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu, hain zuzen, Ramón de la Sota gure herriko kulturari zuzperraldia emon eutsonaren lankide zintzoak. Horreei esker aurkeztu zan Bizkaiko Foru Aldundian euskara zaintzeko akademia bat sortzeko proposamena, eta proposamen hori onartua izan zan. Gero beste hiru foru aldundiak ere batu ziren, eta honela sortu zan Euskaltzaindia.

Ohore, beraz, Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu jaunei jakin ebelako herriaren kezka jasotzen eta bideratzen. Esker on hau gaur

ekitaldi honetan dagozan jeuron senideei luzatu gura deusiet, eta ohore, baita ere, Euskaltzaindia sortzeko ahaleginu ziren euskaltzaleei. Zorionak Euskaltzaindiari ere hirurogeita hamabostgarren urteurrena ospatzen daualako, eta aurrera egin dagizuela kementsu eta adorez euskarren alde beharrean eskatzen eta opa deusuet...